

Mantentze-lanak egiten ari dira Hondarribiako liburutegi eta artxibategian

80.000 euro kostako dute eta urtarrilaren 2tik 21era zuloaga etxea ixtera behartuko du

Hondarribia. Urtarrila ia amaitu arte mantentze-lanak egingo dira udal liburutegia eta artxibategiaren egoitza den Hondarribiako Zuloaga etxean, kale Nagusian.

Pasa den astetik, eta lanen lehenengo fasean, bi zerbitzu hauek behin-behineko bulegoak jarri dituzte udaletxean. Honetaz aparte, udal liburutegiak ohiko ordutegian zabalduko ditu bere ateak urtarrilaren 31ra arte.

Hiru aste hauetan, Zuloaga etxeko bigarren solairuko sabaiak konpondu, zenbait gela margotu eta argiteria zaharra hobe eta modernoago batengatik ordezkatzuko dute.

Urtarrilaren 2tik 21era, aldiz, mantentze-lan hauen bigarren fasea burutuko da eta honek Hondarribiako udal liburutegia ixtea behartuko du egun horietan.

Zehazki, sabaiak konponduko dira, zenbait gela margotuko dira, argiteria berrituko da ere eta eskaileretan zein Zuloaga etxeko atarian ere hobekuntzak egingo dira.

Lan guzti hauen aurrekontua 80.000 eurokoa da. >x.s.